



the balde



0€

abandua | urtarria |
urtarrila | decubris

21

irribarre lausetuak
blurred smiles

31



the balde

anisoain 1
31014 iruñea
t. +34 948 12 19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 696406396

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com - komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director &

publizitatea / publicity: arantza subiñás

diseinua / design: martin etxauri, unai abarzuza, marisa mantxola
sonia beroiz, angel burgaña, igor astigarra, ekaitz auzmendi, ainara
gorostiaga, aritza rueda

itzulpenak / translations: smiley, amata oreja

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz
billar, kristina goikoetxea, myrian gartzia, funtsak, harkaitz bano, nora izagirre,
eider rodriguez,

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde
crew, pedro de la cruz, ivan cresco, izaskun yanguas

ale honetako komikia / comic this issue: txo&odlok

komiki tira / komik strip: jon manzidor

harpidetza orria / subscription page: imanol aizpuru

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo
helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>

*Gipuzkoar batek jostun izateko
eta josturarik gabeko soinekoa
egiteko asmoa izan zuen.*

*Eta klasikoen artean sartu zen
abangoardiaren atetik.*

*Gaur, gipuzkoarrok kultura sortu
eta bizitzeko guneak
ari gara eraikitzen.*

*Gipuzkoarrok asmoak
eraikitzen ditugu.*



Tabacalera (Donostia)



Frontones Oteiza (Azkoitia)



Leidor (Tolosa)



Cuevas de Ekain (Zestoa)



Gipuzkoako Foru Aldundia
gero eta hurbilago!

Aparteko inbertsio
plana 2004-2007



Plan extraordinario
de inversiones 2004-2007

LABURRAK IN BRIEF



IKUSENTZUNEZKO GARAIDEAK

Ikus-entzunezkoen mugak geroz eta lausoagoak dira. Euskarri ezberdinek bat egiten dute, sorkuntza berriei bideak irekiz. Zinea, bideoa, musika, animazioa eta beste hainbat alorrekin lan egiten duten artista berrien bildumak eskura ditugu. Spike Jonze, Michel Gondry eta Chris Cunningham-en bildumez gain, Anton Corbin, Jonathan Glazer, Mark Romanek eta Stephane Sednaoui egileen lanak eskura ditzakezu egun.

CONTEMPORARY AUDIOVISUALS

The borders of the audiovisual are more and more blinding. Different tools get together to open ways to new creations. There are collections of new producers that work with film, video, animation and some other fields. Apart from the collections of Spike Jonze, Michel Gondry and Chris Cunningham, you can get those of Anton Corbin, Jonathan Glazer, Mark Romanek and Stephane Sednaoui.

MICHEL GONDY ZERUETAN ZARENA...

BEGIRADA ASIARRA


Zinema asiarrak zergatik gustatzen zaigun aipatzen hasteak luze joko luke. Azken urteotan iritsi zaizkigun film eskas horiek istorioak kontatzeko begirada berriak daudela erakutsi digute, eta jakina, behin hasiz gero, zaila da asetzea. Zinemaren etorkizuna ekialdetik dator... eta etorkizun hori nolakoa den ikusteko gune hau zure bilatzaileko kuttunen artean jartzea besterik ez duzu.

www.kinoasia.com

ASIAN LOOK

It would take very long to explain why we like Asian film so much. The movies that have arrived these last years showed us that there are new ways to tell stories and once you get used to it, it is very difficult to be fully satisfied. The future of the film comes from the East... and in order to see how this future will look like you just need to add this page to your favorites.

www.kinoasia.com



HI HOW ARE YOU?

Daniel Johnston kantariaren webgunea. Gutxiengo batek ezagutzen zuen musikagile berezi hau. The devil and Daniel Johnston filmari esker, gutxiengo hori apur bat zabaldu da, gutxiengo izateari utzi gabe beti ere. Gune honetan, bere diskoak, elastikoak eta marrazkiak erosteko aukera izango duzu. Arazo psikologikoez eta negozioez ez dute zertan aurkari izan...

www.hihowareyou.com

HI HOW ARE YOU?

This is Daniel Johnston's webpage. He is a special musician that only few people know. Thanks to the film "The devil and Daniel Johnston" more people know him. On this webpage, you can buy his albums, drawings and T-shirts. Psychological problems and business don't need to face each other.

www.hihowareyou.com



Cataluña/Levante: 93.319.6306 Madrid/Andalucía: 91.371.7456 Zona Noroeste: 985.175.232 Zona Norte: 943.396.144 Canarias:928.264.763



pointer®

www.pointerfootwear.com



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Iparraldean antolatuta eta ospatzen diren kultur ekitaldien eragile eta bultzatzailea da Euskal Kultur Erakundea. Bidasoaren ipar ertzean bizi direnentzat edo bisitan doazententzat, gomendagarria da elkartearen webguneari tarteka bisitatzea egitea.

www.eke.org

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

Euskal Kultur Erakundea is the organizer and promoter of the cultural activities organized in the North of the Basque Country. For those who live north side of Bidasoa or for those who visit the place, we recommend having a look at this webpage.

www.eke.org

BESTIARIUM GASTRONOMICAE

Gyula Madarász ornitologoaren lana erakusten digun erakusketa paratu dute Koldo Mitxelena Kulturguneko aretoan. Jose Belmontek, ornitologo hungariarraren lanetan deskribatutako animaliak modu eder eta iradokitzailean marraztu ditu. Zoologia, gastronomia, errealitatea eta asmakizunean oinarrituriko erakusketa original eta ezohikoa gurean. Urtarrilaren 13ra arte.

BESTIARIUM GASTRONOMICAE

There is an exhibition of the ornithologist Gyula Madarász in one of the rooms of Koldo Mitxelena Kultur house. Jose Belmonte drew the animals described in the work of the ornithologist in a beautiful and suggestive way. This is an original and unusual exhibition based on zoology, gastronomy, reality and imagination. Until de 13th of January.

ZENBAT BALIO DU KOADRO HORREK?



ART ANTZEZLANA

Yasmina Rezaren Art antzezlana ibilbide oparoa izan du. Munduko herrialde ugartan antzeztu da arrakasta handiz. Arrakasta horren ardatza, testu biribil bat eta testu hori defendatzen duten hiru aktoreetan oinarritzen da. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Ormazari dagokie euskarazko "Arte" antzezlana honen ardura. Txalok ekoiztuta eta Karlos Zabalaren zuzendaritzapean, hiru aktoreek, erronkari eutsiko diotela ziur gaude. Dagoeneko 50 emanalditik gora hitzartu dituzte.

ART IN EUSKARA

The career of Yasmai Reza's Art theatre play has been very successful. Her work has been showed all around the world. The axis of this success is based on a complete text and on the 3 actors that supported the text. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza and Asier Ormazabal are responsible for the Basque part of "Arte". Produced by Txalo and directed by Karlos Zabala, we are sure these three actors will keep up with the challenge. The 50 performances are witness of this success.





Xibouz

January 17th-19th 2007...Bread & Butter Barcelona

www.xibouz.com





BIHOTZ APURTUAK

Ez dakigu zergatik (ez da egia, badakigu, baina gure buruaz lotsatzen gara...), baina harreman hautsien museoa bisitatzea atsegin dugu. Dagoeneko existitzen ez diren harremanek utzitako aztarnak ikustea zirrara berezia eragiten digu. Ziurrenik, gutariko bakoitzak, etxean, horrelako museo propioa dugulako izango da. Museoaren egoitza Zagreb-en dago baina sarean ere bisitatu daiteke.

www.brokenships.com

BROKEN HEARTS

We don't know why (that's not true, we do, but we are ashamed of ourselves...) but we like to visit the museum of broken relationships. We feel something inside when we look at what relationships that don't exist anymore left. This is maybe because, probably, we all have a similar museum in our houses. The headquarters of the museum is in Zagreb, but you can visit it online.

www.brokenships.com

ARCHITECTURE, ART AND ECHOLOGY



UBU

Ezohikoarekin topo egitea ez da batere erraza. Ezohikoak diren proposamenak biltzen dituen gunea topatzea ordea oso erraza da. Ubu du izena. Sarean dago. Diziplina ezberdinetan aritzen den hamaika sortzailearen hamaika lanekin gozatzeko aukera. Ubu-n eskura duzuen artxiboak ez du preziorik. Ez horregatik...

www.ubu.com

UBU

It is not easy at all to meet the unusual. However, it is really easy to find the place that gathers these unusual proposals. Its name is Ubu and it is on the net. This is a chance to know the creators of many disciplines and their works. The archives in Ubu are priceless. You are welcome...

www.ubu.com



KANARIAR UHARTEKO BIURTEKOA

Arkitektura eta arteak naturarekin duen eta izan dezakeen harremanaz jarduteko antolatuta da biurteko hau. Herrikide, arkitekto eta artistak naturarekin zein harreman eta lotura dituzten aztertzeko antolatuta den ekimen honek ezin zuen kokaleku aproposagorik izan. Gizakiak naturan eragiten duenean eman ditzakeen emaitza anitzeko katalogo baitira Kanariar Uharteak. Onerako eta txarrerako. Hegazkin txartel merkea eskuratu eta animatu...

www.bialdecanarias.org

CANARY ISLANDS BIENNIAL

This biennial has been organized to speak about the relationship that architecture and nature have or may have. This event cannot have a better place. They want to analyze the relationship between locals, architects, artists and nature. The Canary Islands are the catalogue for the results of the intervention of human being in nature. For good and bad. Get a cheap flight and go.

www.bialdecanarias.org


skunkfunk
www.skunkfunk.com





BALENCIAGA ADDICTED TO ROCK!

Rock'n Roll estetika moda mundua kutsatu duela ezeztatzen zuenik geratzen bazen, aurrerantzean bere teoria defendatzeko ez du inongo adibiderik izango. Elkano-ren herrikide zen Balenciaga klasiko eta dotorearen azken kolezioa ikustea besterik ez dago. Bere azken bildumari erreparatu eta Robert Palmer-en Addicted to Love-eko nesken gerri mugimenduan pentsatzen hastea bat izango da.

www.balenciaga.com

BALENCIAGA ADDICTED TO ROCK!

If there was someone who denied the influence the rock and roll aesthetics in fashion, from now on, he won't find any example in which to base his theory. You just have to have a look at Balenciaga's collection. Look at his last collection and you'll start thinking about the waist movement of the girls in Robert Palmer's Addicted to Love.

www.balenciaga.com

ROCK FASHIONISTS



KEROBIA


Coldplay, Keane... Kerobia. Bai, iruindarren iturriak zeintzuk diren nabarmena da. Iturri horiek mesprezuz aipatzen dituztenen artean, txalaparta zaleak besterik ez egotea eskertzekoa litzateke, Euskal Herrian egin den beste musika guztia kanpoan egindakoaren kopia edo moldaketa izan delako. Bigarren lana kaleratu du Kerobiak: Rose Escargot. Euren zuzenekoaren kalitatea ikusita, kontzertu ugari emango dituztelakoan gaude. Datak, taldearen webgunean begira ditzakezue.

www.kerobia.com

KEROBIA

Coldplay, Keane, Kerobia... It is obvious what the sources of this band from Iruñea are. Among those who despise these sources, we hope to find only "txalaparta" fans because all the music done in the Basque Country is a copy or a modification of the music done outside. Kerobia has just published the second album: Rose Escargot. According to their live quality, we think they will give many concerts. You can check the dates on their webpage.

www.kerobia.com



Gaur Sautrelatik bi gomendio egin nahi dizkizugu, irakurle

Lehena: "Ilearen norabidea animalia eta gizonarengan" Walter Kidd-ek 1903an idatzirik liburu gogoangarria

Bigarrenik A.F. Dorian-en "Goma eta plastikoen hiztegi teknologikoa sei hizkuntzetan"

Besterik ez. Izan untsa eta jaunak nahi badu datorren asterarte.



Laus 07/

37ª edició dels Premis Laus
del Disseny Gràfic
i la Comunicació Visual

37ª edición de los premios
Laus del Diseño Gráfico
y la Comunicación Visual

The 37th edition of the Laus
Graphic Design and
Visual Communication Awards

www.laus07.net

adg

fad

**El festival
de les idees boniques**

**El festival
de las ideas hermosas**

**The beautiful ideas
festival**

Salvem a les idees
boniques!

¡Salvemos a las ideas
hermosas!

Save beautiful ideas!




Institucions/Instituciones/Collaborating Authorities

Col·laboradors/Colaboradores/Collaborating Companies

www.euskaraz.net

donostia sarean

Gorostian gorosti →



Liburuak

Albisteak →



Kultur agenda


Hiztegiak




no comment

argazkia / shot: ivan crespó • menorca





negukoloreak · winter bow









jantziak/clothes: noraizagirre.com argazkilaria/photographer: izaskun yanguas makilajaea eta orrazera/make up and hair: arantza biurrun estilistak modelua/model: aitziher



mapalimpsestoa

bidean /on the way



Ez dago bideari burua mozteko modurik. Bururik gabeko sugea da bidea.
It is not possible to behead the way. The way is like a headless snake.



testua / by: harkaitz cano
argazkiak / shots: pedro de la cruz

Esnatu da sugea, habia harri zakarrez egindakoan. Ez ditu ikusten automobilaren argiak... Ez da ohartzen hiltzera doanik ere.
The snake, in its dirty rock nest, has awoken. It doesn't see the headlights of the cars... It doesn't even know it's going to die.



Txalupek sostengatutako oholek eusten diote zubiarri. Ontzien azpian muskuiluak daude itsatsita eta muskuilu saldoak hazi ahala urpeko arrokekin elkartzen dira barku, ohol eta zubi; denak bat. Ahaztu egiten dugu sarri, baina ura dago tinkotzat jotzen ditugun gure bideen azpian ere. Edozein unetan hondora gaitzke.

The planks that make up the boats tied to the bridge hang on there. Clusters of clams cling to the undersides of the boats and as the colony of clams grows to the rocks all becomes one: the planks and the bridge. We often forget, but what we regard as a steady underfoot is actually water, and we could sink down at any moment.



Kanpin-dendak autoen sabaian. Sugeak lotan direnen deskantsua gogaitzera irits ez daitezten? Oinbiko sugeek Land-roverrak lapur ez ditzaten?
Bidaiariak lokartzean, basamortuko mamuek hartzen dute bolantea. Eta bidaiari lokartuak, gauean gidari doazen mamuen ametsetan agertzen dira.

Tents pitched on car roof. Is it to stop the snakes from disturbing the sleep of those who slumber. Is to stop two-footed slithering sly cats from robbing the Land Rovers. When the travellers fall asleep, the ghosts of the desert take over at the wheel. And the sleepers appear in the dreams of the ghost drivers.

ateak / the gates



Ate bat eta herriska zuri bat bestaldean: elurra zer den esplikatzeke, karea.

A gate and a small white village on the other side. How to explain what snow is: lime.



Ate bat. Eta bestaldean, ezer ez. Edo bestela esanda: dena. Horretaz jabetu balitz, lagun koadrila hori ez legoke hain lasai.

A door. And on the other side, nothing. Or to put it another way, everything. If they knew that much, the group of friends wouldn't be so carefree.



70. hamarkada da, nork esango luke? Ate berde hori txukun dago pintatuta. Ziur gaur egun zirtzilaturik dagoela honez gero eta inork ez duela lixatu eta gainetik pintura esku bat emateko nekerik hartu aspaldian. Emakume hori oinez, buruan olagarro zuri bat duela. Erlazain, fumigatzaile, B serieko Unidentified Flying Object.

It's the 70s. Who'd have guessed? That green door is nicely painted. It's surely fallen into disrepair since then. Nobody's bothered to sand it down and give a new coat of paint. There's a woman walking, she's got a white octopus on her head. A beekeeper, a fumigator, a UFO from a B-movie.

buruak eta estatuak / heads and statues



Maisu japoniar batek pintzela tinta beltzean busti du blai: gizon zaharraren erretratua egitera doa. Arroz-paperaren gainean bizarraren kurba dibujatu du lehenbizi, sudurrean puntu bat eta kiribildura bikoitza marraztu gero, betaurrekoena. Alfabeto atzemanekin bateko hizki bat da bere erretratua.

The Japanese master has soaked the tip of his paintbrush in blank ink. He's about to paint a portrait of the old man. First onto the rice paper is the curve of his beard, followed by the tip of his nose and the twisting frame, the one belonging to the glasses. The portrait is a letter from an unreadable alphabet.



Buruak tente. Elurretan leporaino hondoratuta. Begiak irekita. Buruz buru. Eta hala ere, ez dugu buru horren lepotik beherakoaren jakinminik, aski zaigu burua: buru boteretsua da. Gauza bera gertatzen da arranoarekin: halako indarra du bere mokoak, hegoak faltan dituenik ere ez baikara ohartzen. Ez dugu zalantzarik arrano hori hegaldan daitekeela, berak hala nahi izatera. Batzuetan —gutxitan— nahikoa da burua.

Head held firm. Buried up to the neck in snow. Eyes open. Ahead. Still and all, we have no real interest in the bit below the head resting on the neck, the head's enough. It's powerful. The same happens with the eagle: its beak are so strong, we don't even realise it has no wings. We do not doubt that the eagle can take to the air if it so wishes. Sometimes — not many times all the same — the head is enough.



"Hildakoak zutik lurperatzen dituzte hemen?"
 "Estatua bat da eta!"
 "Soldaduek zaintzen dituzte hemen estatuak?"
 "Hildako bat da eta!"

"Do they bury their dead standing up here?"
 "It's a statue!"
 "Do the soldiers watch over the statues here?"
 "It's a corpse!"



Pertsian ateratakoa da argazki hau, nork esango luke? Pertsiarik ez da jada. Mapetatik harramazka atera dute Pertsia, hormetako paper estanpatu zimurtua bailitzan, harekin soinekoak egiteko. Soinekoetan bizi da orain Pertsia. Aurpegi eta jantzietan. Lau haizetara dabilen jantzi zuria da Pertsia. Buru tente bat da Pertsia. Pertsia da: maparik gabeko harrotasuna.

This photograph was taken in Persia. Who would have said? Persia doesn't exist anymore. It's been scratched off the maps, like it's some crumpled up wallpaper image to make dresses with. Persia lives on dresses now. On clothes and faces. Persia is like a white robe blowing in the four winds. Persia holds its head up firmly. Persia is: pride without a map.



Umearen oroitzapena: bere aita, labana odoldua hondarretan sartuz garbitzen. Hobe gosaldu eta lehenbailehen ardiak zaintzera joan.

A child's memory: cleaning his bloody knife in the sand. Better have breakfast and get off to look after those sheep.



Gabardinaren boterea. Sei botoi, ondo lotuak. Postura ikasia. Ez da bere ejertzitokoa gabardina hori, baina ejertzitoren batekoa da, dudarik ez. Gerra bukatzean dominak, arropak, argazkiak eta harri puskak saltzen dituzte herri txikietakoko sarreretan, kalean. Hildako soldaduauren papurrak, purra-purra banatuak, lau sosen truke souvenir. Laranja eta zuria du bizarra, bi kolorekoa: "Hau dut ene bandera", esan nahi digula dirudi. Edo baita ere: "Ni bizirik nagok eta gabardinaren lehengo jabea ez".

The power of the combat jacket. Six buttons, well buttoned. A studied pose. It's not from the country's army, it's from another one. No doubt about that. When the wars finish, at the entrances to small villages they sell medals, clothes, pictures and lumps of rock. The crumbs dead soldiers left behind. Souvenirs for next to nothing. His beard is of two colours: white and orange. It's as if he's saying: "This is my flag" or "I'm still alive, unlike the previous owner of this jacket."



Jakin nahi haien goitizenak? Oliba Erkin, Laxai Ausart, Ipuin Kontalari, Ez-Niri-Gero-Hola-Begiratu eta Monsieur Pragmatiko. Izaera eta arrazen graduazioa. Nork bere jatorria, nork bere arma eta nork bere harrotasuna. Pokerrean ari bagina: koloretako eskailera.

Wanna know their nicknames? Olive Erkin, Laid back and daring, The Storyteller, Don't-look-at-me-like-that and Mr Pragmatic. The grading of race and character. Each one has their origins, their weapons and their pride. If we were playing poker: a straight flush.



Hautsa: iskanbila eta sesioa ardi bat falta delako. Errua ez da otsoarena.

Dust: uproar over a missing sheep. The wolf is not to blame.

Saiheska daude. Ez dira posatzen ari, ez horixe. Eskua fusilaren uhaletik askatu gabe begiratzen diote argazkilariari, zeharka, bideari berriz ekiteko gogotsu. Hormaren kontra dagoen bizikletak kontzientzia propioa dauka eta burutazio sarkastiko bat: "Hormaren kontra egon arren, ni ez naitek berehala fusilatuko!"

They're angry. They are not posing, no sir. They don't take their hands off their rifles as they look across at the photographer, eager to continue on with their journey. The bike leaning against the wall has a conscience of its own and a sarcastic quip springs to mind: "I'm up against the wall but I won't be shot just yet."



Lotsaren fuga puntua: lehen lerroan eta erretratatuak izateko beldurrik gabe daude mutikoak, guri begiratu nahi digute kameraren objektiboan zehar. Atzeraxeago neskatila lotsatiak, inguratzen auzartu gabe. Eta atzerago, urrunago are, lotsa lanarekin nahasten da. Lana apalki uzta bildu behararen sinonimoa da.

The point where shame disappears: these boys have no fear of being in the front line and having their picture taken. They look straight at us through the lens. The shy girls hang around at the back, to timid to approach. Further back again are those who don't come nearer out of shyness and because they have to work. Humble work should be a synonym of harvesting.









Erdikoak pentsatzen duena: "Gainerakoak lasai arraio eserita zeudek, baina ni ez nauk fidatzen. Horregatik geratu nauk zutik... Beha nire itzalari: abade makurtu baten antza dik, Mendebaldeko Heriotzarena, sekretu bat diat nik eta beste sekretu bat dik nire itzalak. Ez zaukaugu elkarren sekretuen berri."

The one in the middle thinks: "The rest of them are sitting nice and easy, but I won't be lax. That's why I'm still standing... Look at my shadow, bent over like an abbot, like Death from The West, I have a secret and my shadow has another one. We don't know each other's secret."

Argazki hauek, 1978. urtean Donostiatik Indiara Land-Roverrean eginiko 8 hilabetetako bidai batetan ateratak daude.

These photographs were taken during an eight-month journey from Donostia to India by Land Rover in 1978.



Si vous voyiez mon coeur ainsi que mon visage,
 Vous le verriez saignant, transpercé mille fois.
 Tout brûlé, crevasse, vous seriez sans ma voix
 Forcée me pleurer, et briser votre rage.
Theodore Agrippa d'Aubigne

For the sword outwears its sheath,
 And the soul wears out the breast,
 And the hearth must pause to breathe,
 And love itself have rest,
Lord Byron

Bihotz, buztinezko Bihotz,
 Exe triki bat zara,
 Ahula, hauskorra, lau gelatako:
 Lau, lau gelatan Bihotz,
 Zehat mannu daukazun,
 Nola ikaraten zaren, gauan:
 Gau, gau batzutan Bihotz,
 Hautsi egiten zara,
 Lurreira jausi eizetxo baten gisan:
 Bihotz, jaustako Bihotz,
 Añ zara intzirik,
 Kexu zara, negar zara, oi Bihotz:
 Zer, zer diozu Bihotz,
 Ez zaitut koppenitzen
 Zure hitza arrotza zait, bixia:
 Zait, Einsamen Helian,
 Abens grauen Flammendes,
 (Denbora, Helian bakartia,
 Iluntzea, grisa, lamatan)
 Ez zaitut koppenitzen, oi ene Bihotz.

Der Tod ist ein Meister,
 Und du, zur Linken, du,
 (Heriotza mausu bat da
 Eta zu, sinestro a zu)
 Ez zaitut koppenitzen, oi ene Bihotz

Der, des menschen Sinn,
 Von zweifeln voll,
 (Gizonen patur
 dudaz betea)
 Ez zaitut koppenitzen, oi ene Bihotz

Bihotz, antzinako Bihotz,
 Ez al zara zaharregi,
 Eta ilun, eta itsu, barregarri:
 Ilun, ez da dena ilun,
 Begirarazu lehortik,
 Ikusitazu baso hori, beidatzen
 Berde, zain berde dauhen,
 Basoko garo zurhatzak,
 Zain isil eta lasai, arratsean,
 Arrats, arrats hontan Baso,
 Hartzazu ene Bihotza,
 Buzinetik sortua da, zu bezala,
 Hitzaki, Bernardo Atxaga,
 Ahozsa: Mikel Laboa

Canal 1 - x1.00


ECG Gananc

Canal 3 - x1.00

ECG Gananc

bihotzaren mintzoa

heart languages



Canal 1 - x1.00 Canal 2 - x1.00 Canal 3 - x1.00



Loteria 2, 48005 alde zaharra

Gordoniz 2, 48011

www.cop-copine.com

MEM ARTEEN JAIALDIA

www.musicaexmachina.com

zine, dantza, musika, hitzaldiak, performance, erakusketak,...

BILBO azaroaren 23tik-abenduaren 30ra
BILBAO del 23 de Noviembre al 30 de diciembre

Ura

Aids Wolf

The Fluxus Films

Electroliving

Oier Etxeberria

Rinus Van Alebeek

Aki Onda & Alan Licht

Consumer Electronics (Whitehouse)

Xedh

Baseline

Sons of Bronson

Merzbow

instalación "UER" **Peter Bosch & Simone Simons** "Último Esfuerzo Rural"

Damo Suzuki's Network (Can) & Haiku Kaiku : Rober (Atom Rhumba), Murky (Ginferno), Xabel Vegas (Manta Ray), Mikel Abrego (Inoren ero ni) o Galder Izagirre (Kuraia), Kaki Arkarazo (M-ak, Nación Reixa, Negu Gorriak)

....

MEMIA

six questions for emmanuel santarromanarentzat sei galdera

testua / by: the balde

Why The Beatles?

As a Dj, I made a compilation for the french designer "Barbara Bui". For this compilation, I made a cover of The Beatles called "We can work it out". A lot of people told me that this track was one of their favorite and we licenced it a lot all over the world. So I was thinking about doing a complete cover album of The Beatles, "Fab 4 Ever".

Did you work each song independently or you thought the record as a global idea?

As you can listen on this album, each song seems to be particular, especially because I took different singers for each song, but it also sounds like a concept album with a global idea. It sounds like the way I feel with what we call electro-pop music. If you listen my first album "Metropolitain" there is a song called "Père Lachaise" which sounds exactly like some of the tracks in this album.

Some people would think it's not a risky effort to do Beatles versions...but to me it seems like an enormous responsibility..How do you feel about that?

At the beginning, when I was thinking about doing it, I was not really sure. But I think The Beatles tracks are part of the big répertoire. Do you ask to a jazz singer if it's easy or not to cover "Night and day". It's the same kind of responsibility. You just have to be respectfull with the spirit of the song. I tried to be...

Was it easy to obtain the rights for the songs?

I had to do the demos of all songs and my label sent it to the "Nashville office" in US. They take care of The Beatles catalogue. After few months they said ok. I don't really know how they took the decision but what I know it was really long.

Second studio album, from Paris...to Liverpool.... Wich are the principal differences between both works?

For the first album, we decided to do each song separatly, it was the concept anyway, this kind of multi-ethnic music in the same city. The first album sounds really eclectic. I think this one is more homogenic like I said before.

Are you working on something right now?

I'm working on two projects. One is the continuation of this electro-pop music, but with my proper compositions like the one i told you about "Père Lachaise". The other is something more clubby. I started to work with Henry Padovani who was the first guitarist of "Police". We want to do some electro-rock tracks with this Punk-rockabilly feeling coming from bands likes Stray Cats etc...

Zergatik The Beatles?

Dj bat nintzanean, "Barbara Bui" frantsez diseinugilearentzako bilduma bat egin nuen. Eta horretarako, "We can work it out" deituriko The Beatles-en "cover" bat egin nuen. Jende askok beren gogokoetako abesti bat zela esan zidan eta mundu osoan zehar zabaldu genuen. Beraz, The Beatles-en diskarentzako "cover" oso bat egitea pentsatzen ari nintzen, emaitza "Fab 4 Ever" diskoa.

Abesti bakoitza independienteki pentsatuta dago edo diska osoan pentsatu zenuen?

Diska honetan entzun dezakezun moduan, abesti bakoitza berezia da, batez ere, abesti bakoitzarentzako abeslari ezberdinak hartu nituelako; baina diska ere ideia global bat bezela entzun daiteke. Nire lehenengo albuma "Metropolitain" entzutean, "Père Lachaise" izeneko abesti bat dago eta honek bilduma honetako abesti batzuen doinu bera du.

Jende askok The Beatles-en bertsioak egitea arrisku gabeko zerbaít dela pentsatuko du, baina, nire ustez, ardura handia da... zer uste duzu zuk honi buruz?

Hasieran, hau egitea pentsatzen ari nintzanean, ez nengoen batere ziur; beldur nintzen. Nire ustez, The Beatles-en abestiak répertoire handiaren parte dira. Jazz abeslari bati galdetzen diozu erraza al den "Night and day" abestiaren "cover" bat egitea. Ardura berdina da. Abestiaren izpiritua errespetatu behar duzu eta ni saiatu naiz...

Abestien eskubideak lortzea erraza izan al zen?

Abesti guztien "demo"ak egin behar izan nintuen eta nire diskoetxeak AEBtako "Nashville office"ra bidali zituen. Haiek Beatles-en bildumaren arduradun dira. Hilabete batzuk berandago onartu egin zuten. Ez dakit nola hartu zuten erabaki hura. Dakidana da denbora asko izan zela.

Bigarren bilduma, Paristik Liverpoolera. Zeintzuk dira ezberdintasun garrantzitsuenak bien artean?

Lehenengo bilduman, abesti bakoitza bakarka egitea erabaki genuen. Hala ere, hiri berdinean etnika ezberdinen antzeko musika kontzeptua zen. Lehenengo diskoa oso anitza da. Lehen esan dudan bezala, hau homogenikoagoa dela uste dut.

Zerbait prestatzen ari al zara orain?

Bi egitasmo. Bata elektro-pop musika honen jarraian dator baina konposizio egokiagoekin, "Père Lachaise"rena bezalakoa. Bestea eksklusiboagoa da. "Police"-eko kitarra izan zen Henry Padovanirekin lanean hasi nintzen. Punk-rokabilly estiloko abesti elektro-rock batzuk egin nahi genituen, Stray Cats taldearen modukoak.






lemon flavour capsula to remember

You just published a new album, "Songs and circuits" (Liliput, 2006). What kind of album is this? Martin: "It is similar to the one we did lately live, more rocker. It also has some characteristics from other albums. In English? Martin: "Yes, the whole thing" It seems we go against what people do. Since the beginning of this year, we played out a lot, France, Germany, United Kingdom... and so, it had no sense to sing in Spanish there." Coni: "We try the message to arrive easier, we want to get closer to people. English is a tool and we wanted to use it." Where does the meaning of the title come from: "Songs and Circuits"? Coni: "In the end, this is what music is, songs and circuits, you need them to create an album. On the other hand, these are songs that lately have helped us. Martin: "Besides, we also wanted to use the classic concept: the need of circuits to reflect songs in an album." And the lyrics? You always have something special with lyrics... Martin: "We submerge on what we always do, experiences, sensations, pictures or images of people we met on our way... Coni: ...told in a very personal way, we really like puns, we often use language the way we want." Martin: For example, the single in the album, "Voices Underground" is about that, we talk about what happens in the storeroom." You are Argentinians. However, you have lived in Bilbo for a long, long time. Did you find something to say in the Old Bilbo? Martin: "Yes, that's it. Besides, we also lived in the same kind of neighborhood in London and Berlin. We reflect this light and shadows in the album. It's been a long time since we live here. We also lived the change in the city, not only in our neighborhood. At the beginning, we were something weird for people, Argentinians! Now, people assumed this and some other things too." Coni: "We lived the change, the new against the old. However, Bilbo has many good things. At the beginning, we just came here to spend six months... we are still here." And the concept you had before about the Basque country, is it more solid now? Martin: "We knew the Basque Country of Eskorbuto, La Polla and Zarama. But once you get here, there are so many things that surprise you: "koadrila"s, people on the streets... Coni: "Besides, we were looking for a place to live but also for a place where we could go on with our music. In London and Berlin is not easy, but here, we have a concert almost every weekend and this is what we wanted."



limoi zaporeko oroitzapenatarako capsula

Disko berria atera duzue, "Songs and circuits" (Liliput, 2006), nolakoa da diskoa? Martin: "Zuzenean azkenaldian egin dugunaren antzekoa, rockeroagoa, baina badu ere beste diskoetako ezaugarririk". ¿Ingelesez? Martin: "Bai, den-dena (kar, kar, kar). Badirudi jendeak egiten duenaren kontra egiten dugula guk. Urte honen hasieratik edo, asko jo dugu kanpoan, Fantzian, Alemanian, Erresuma Batuan... eta ez zeukan zentzurik han gazteleraz abesteak". Coni: "Mezua errazago helarazten saiatzen gara, jendearengana hurbildu nahi dugu. Ingelesa hor dagoen tresna bat da, erabili nahi izan dugu". Nondik dator izenburuaren esanahia, "Songs and Circuits"? Coni: "Azken finean, hori da musika, abestiak eta zirkuituak, beharrezkoak dira disko bat egiteko. Bestetik, azkenaldi honetan lagundu izan diguten abestiak dira". Martin: "Gainera kontzeptu klasikoa ere erabili nahi izan dugu, zirkuituen beharra abestiak disko batean islatzeko". Eta letrak? Betidanik izan duzue kontu berezia hitzekin... Martin: "Betikoan murgildu gara, bizipenak, sentsazioak, bidean aurkitu dugun jendearen argazkiak edo irudiak... Coni: "...Baina nahikoa era pertsonalean kontatuak, hitz jokoak oso gustuko ditugu, nahi dugun erara erabiltzen dugu hizkuntza askotan". Martin: "Adibidez, diskoaren singlea, "Voices Underground", horri buruzkoa da, sotoan gertatzen ari denaz hitz egiten dugu". Argentinarrak zarete, baina jada denbora dezentea da Bilbon bizi zaretena, Bilbo Zaharrean zer kontatzerik ere aurkituko zenuten? Martin: "Bai, bai, hala da. Gainera Bilbora heldu aurretik izandako hirietan ere, Londresen edo Berlinen esaterako, antzeko auzoetan bizi izan gara. Diskoan ere islatzen dira aurkitutako iluntasuna eta argia. Badira urteak Bilbon bizi garela, gu ere hiriaren aldaketaz jabetu gara, gure auzoan eta Bilbo Zaharrean. Hasieran nahikoa gauza bitxia ginen jendearentzat, argentinarrak! Orain jendeak barneratuta dauzka kontu horiek eta beste batzuk ere". Coni: "Aldaketa ezagutu genuen, berria zaharraren kontra. Baina gauza on asko ditu Bilbok eta hasieran sei hilabeterako etorri baginen ere, hemen gaude oraindik". Eta etorri aurretik Euskal Herriaz zenuten ideia sendotu al da? Martin: "Guk ezagutzen genuen Euskal Herria, Eskorbuto, La Polla eta Zaramaren Euskal Herria zen. Hona heltzerakoan hainbeste gauzek harritzen zaituzte!, koadrilek, jendea kalean ikusteak... Coni: "Gainera, bizitzeko leku baten bila genbiltzan, baina baita ere jarduera musikala aurrera ateratzeko toki baten bila ere. Londresen edo Berlinen ez da erraza, baina hemen ia asteburu daukagu kontzerturen bat, hori zen nahi genuena"



AUDIO

testua/by: elektro



Atom Rhumba Amateur universes Oihuka 2006

Bilboko sexu makina martxan da berriro. Atom Rhumbaren lan berriak, aurreko diskoen dinamikari jarraituz, talde sendo baten soinua dakar, azken urteetan mantendu duen formazio luzeenak lor dezakeena. "Mr everywhere" eta "Home made prozac" eztaudekin hasi eta "Broken town" edo "Amateur universes" bezalakoekin doinu lasaigoen alboan "Body clock"-en tankerako kanta lizun eta zikinak aurkitzen dira. Adi "Hidden revelations" kantu lisergikoari. Kutsakorra, dantzagarria eta psikodelikoa. Gerria mugiaraziko digun diskoa. Orain, abestiak ikasi eta zuzenekoekin gozatzea besterik ez dugu.

The sex machine from Bilbao is back in the ring again. This new release from Atom Rhumba keeps up the dynamics to be found on previous releases, the sound of a solid band. The steadiness of the line-up in the last few years is behind that solidness. It kicks off with the explosive "Mr Everywhere" and "Homemade Prozac", tones it down on "Broken town" or "Amateur Universes" and gets hot and sticky on the likes of "Body clock". Watch out for the lysergic buzz of "Hidden Revelations", catchy, danceable and psychedelic. This record will get you grovin'. All we have to do know is learn the tunes and get ready for the live shows.



Neubat Stereosaurus Matasellos 2006

Neubat desertuko taldea da. Gasteiz desertuaren erdian dagoen Mad Max kutsuko hiri lehorreraren bakartia dugu. Hori da behintzat gasteiztarren disko berria entzunda batek pentsa dezakeena. Eskarmentu handia du taldeak "Dantzaldiko Erreginak" lehen diskoa kaleratu zuenetik, batez ere zuzenekoetan. Honela, ahotsaren tratamendu berezia nabari daiteke disko berrian, alor horretan lan handia egin dute. Gainera estilo bakarrean sailkatu beharrean stoner, rock eta punk izaera duten kantuak aurkezten dizkigute, beti bezala, luxuzko kolaborazioek lagunduta.

Neubat are a desert band. Gasteiz is the dry solitary city in the middle of the desert in Mad Max. Well, that's what kinda springs to mind when you listen to the latest offering from this Gasteiz band. The band have certainly learnt their trade, above all live, since they released their first record "Dantzaldiko Erreginak." The voices come in for some special treatment on this record, they've really worked hard on this aspect. What's more, there's more than one style on show here, you've got from stoner to rock and punk songs. There's some really top class collaborations on show, too.



The Rapture Pieces of the people we love Universal Music 2006

"Echoes" diskoarekin dance-funkaren oinarriak (punkaren baimenarekin) ezarri zituen The Rapture-k. Ezinbesteko erreferentzia bilakatu zen mugimendu horretan. David Bowie edo The Cure bezalako gogorarazten zituzten doinueta babesturik egin zuten hori. Orain, zigilu handi batekin argitaratu duten arren, taldeak berean jarraitzen du: kristalezko bola astintzen. Doinu argiakoak datoz disko honetan, aurreko iluntasuna alde batera utzita. Aipatutako eraginak baztertu gabe, euren egin duten estiloan babestuta datoz. Diskoa indartsu hasten da, azkenaldian entzun dudana modurik gartsuenean. Eta kantuek aurrera egin ahala ez da jaisten. Etenik gabeko gorakada!

The Rapture laid down "Echoes" with lashings of dance-funk foundations (a nod to punk there too.) The soon became a must-mentioned reference in the movement. Their songs reminded you of Bowie or The Cure. Since then they have been signed by a multinational and the band are still sticking to theirs: whacking that crystal ball. The songs are lighter this time around and they've dropped the dark side a bit. Without turning their backs on the previously mentioned influences, they come across a sound that bears more their own mark. The record steams away from the start, a real powerhouse, and it doesn't let up from there to the end either. Up, up and away!



Whatch Tv and The Primetimes Discolexia Hitop records 2006

Ruben Garcia da Whatch Tv. Azken urteotan, Europako diskoetxe eraginkorrenetan argitaratu ditu bere nahasketak, eta gauza bera gertatu da nahastu dituen artistekin. Ezinbesteko pieza da beraz Estatuko dantza mugimenduaren baitan. Orain, proiektu berriarekin datorkigu: The Primetimes taldeko kideekin gauzatu duen Discolexia. Gecko Turner, Eddie Lovana edo El Gran Lapofsky bezalakoekin laguntza izan du amorez eta dantzarako erritmoz beteta dagoen disko hau egiterakoan. Ondo pasatzea gustuko baduzu, hemen duzu neguko gripearentzako sendabelarra.

Richard Garcia is Whatch TV. He's released his mixes on some of the most influential record labels over the last few years and the same can be said for the artists he has worked with. He's an essential part of the dance scene in State. He's back again with his latest project: Discolexia, recorded with the good people from The Primetimes. Gecko Turner, Eddie Lovana and El Lapofsky are just some of the people that have helped fill this record with humour and dance. If you're feeling under the weather, this record will soon clear your cough for you.

Bikini Machine Daily music cookin' with Bikini Machine Platinum 2006

Olatu baten gainean etorri ziren joan den urrian Bikini Machine Bilboko Bilbloop jaialdira. 60. hamarkadako eta gaur egungo doinuak nahasten dituzte, surferrako joera ezkatatu gabe, eta doinu instrumentalei ere atea irekiaz. Gainera, oinarri elektronikoen laguntza ere badute kantuetan. Gehienak ingelesez abesten dituzte, baina frantsesez ere badira. Zuzenean bezala, diskoan ere festa bat dira, dantzan jartzen zaituzten doinuak beteta.

This lot rolled into the Bilbao Bilbloop festival on the brink of a wave last year. They mix modern day melodies with sounds from the 60s, with the odd wink to surf instrumentals thrown in for good luck. There is also an element of electronic sound on each track, most of which are sung in English with the odd one in French. This band are as much a party on record as they are live. These tunes will have you egging to bop.

Matt Elliot Failing Songs Acuarela discos 2006

Urteak dira Matt Elliottek bere buru eta arimaren barnealdara salto egin zuela. Bakarlari moduan aurkezten digun hirugarren diskoa dugu honokoa. The Third Eye Foundation taldean gauzatzen zituen erritmoak ahaztuta, disko sakonak argitaratzen ditu gaur egun britainiarrek. Askotan mingarriak egiten zaizkigun diskoak. Horrelakoak dira lan berri honetan aurkezten dizkigun doinuak: muturrera eramanez askotan. Malenkonioa, tristura eta mina eskutik helduta dakartzu, Mediterraneo edo Balkanetako musika egiturak erabiliaz. Eguneroko bizitza alai bezain gordina izan daitekeela erakusten diguten kantuak... It's been years since British Matt Elliot took that jump to his interior soul. This is his third album as a single artist. He's left behind the rhythms of The Third Eye Foundation to release darker albums these days. His records are sometimes painful and it's the same this time around. Some of the songs on his new album go to the extreme. Melancholy, sadness and pain dressed in the musical robes of Mediterranean and Balkan melodies. The songs show us that everyday life can be as crude as happy...

olatuen jaiotza



testua / by: uxeta labrit

the birth of the waves

Antzina, gizakia, lurra, eta itsasoa elkarrekin ongi moldatzen ziren.
Gizakiak lurrean egiten zuen lo baina itsasoan eta itsasotik bizi zen.
Gizakiak itsasotik jaten zuen eta itsasoa zuen
uharte batetik bestera joateko bide.



Long time ago, the earth and the sea got along very well.
The human being slept on the earth but lived in the sea.
Human beings eat from the sea and the sea was the means
to get from one island to the next one.

Eta itsasgizonak, itsasoaren
alabekin jolasten ziren.



And sailors played
with the daughters of the sea.

Ilargirik ez zegoen gau batean ordea, itsas gizon batzuek jolas horiek
lur eremuetara eraman nahi izan zituzten. Itsasoari bere alabetako bat
lapurtu eta uharteko mendixkarik garaiera eraman zuten.



On one night with no moon, some sea men wanted to take those games
to the land and so, they kidnapped one of the daughters to the sea and
took her to the highest mountains in the island.

Une hartatik aurrera, gizakiak alaba lapurtu zionetik, eguzkia edo ilargia egon, atsedetik gabe, alaba berreskuratu minez, itsasoak olatuak bidaltzen ditu luraren kontra.



And from that moment on, since they stole the daughter, sun or moon, the sea constantly sends waves against the land to rescue her.

billabong pro mundaka



billabong.com



Koldo Mitxelena Kulturunea
 Urdaneta 9
 20006 Donostia
 www.gipuzkoakultura.net

GU- RE- AR- TEA

2006

19. edizioa / edición 19

Miren Arezana	Itziar Barrio	Charo Garaigorta	
Iñaki Gracenea	Ismael Iglesias	Iratxe Jaio	Klaas van Gorkum
Jeleton	Aitor Lajana	Abigail Lazkoz	Maider Lopez
Mikel Louvelli	Asier Mendizabal	Aitor Ortiz	
Juan Pérez Agirregoikoa	Txuspe Poyo	Begoña Zubero	

2006ko URRIAREN 19tik 2007ko URTARRILAREN 5era
